

**URDAIBAI BIOSFERA**  
**ERRESERBAREN LANKIDETZA**  
**KONTSEILUAK 2003ko IRAILAREN**  
**23an EGINDAKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE 23 DE**  
**SEPTIEMBRE DE 2003 DEL CONSEJO**  
**DE COOPERACIÓN DE LA RESERVA**  
**DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI.**

**ETORLEAK**

**ASISTENTES**

**Iñaki URIBARRENA IBARGUENGOITIA**  
**Jauna**  
Lankidetzako Kontseiluko Lehendakaria

**D. Iñaki URIBARRENA**  
**IBARGUENGOITIA**  
Presidente del Consejo de Cooperación

**Erroxeli OJINAGA FILIBI Jauna**  
Zain Dezagun Urdaibai

**D. Erroxeli OJINAGA FILIBI**  
Zain Dezagun Urdaibai

**Javier LARRINAGA LEKERIKA Jauna**  
Bizkaiko Erlazainen Elkarte

**D. Javier LARRINAGA LEKERIKA**  
Asoc. Apicultores de Bizkaia

**Koldo LEZAMIZ Jauna**  
Urdaibaiko Galtzagorriak

**D. Koldo LEZAMIZ**  
Urdaibaiko Galtzagorriak

**Fernando ARTETXE Jauna**  
Goizale Mendi Taldea

**D. Fernando ARTETXE**  
Goizale Mendi Taldea

**Elena ARANDA LAMBEA Andrea**  
Nekazal Turismo Elkarte

**D<sup>a</sup>. Elena ARANDA LAMBEA**  
Asoc. Agroturismos

**Xabier ARANA EIGUREN jauna**  
Zuzendari Artatzailea

**D. Xabier ARANA EIGUREN**  
Director Conservador

**Juan LANDA MENDIBE Jauna**  
Patronatoko Akten Idazkaria

**D. Juan LANDA MENDIBE**  
Secretario de Actas del Patronato

“Udetxea” egoitzan, 2003ko Irailaren 23an, arratsaldeko zazpiretan, Iñaki URIBARRENA IBARGUENGOITIA jauna presidentea izanik, eta behin-behineko idazkaria Juan LANDA MENDIBE jauna delarik, goiburukoan aipaturiko jaun-andreak bildu dira, nahiko alde zuzenetik banaturiko eguneko aztergai-zerrendako puntuak aztertzeko, ondoren adierazitakoaren arabera.

En la sede “Udetxea”, a las diecinueve horas del día 23 de Septiembre de 2003, bajo la Presidencia del Sr. D. Iñaki URIBARRENA IBARGUENGOITIA, asistido por el secretario accidental D. Juan LANDA MENDIBE, se reúnen los señores anotados en el encabezamiento al objeto de tratar los puntos de orden del día distribuido con la debida antelación, y que se desarrolla como a continuación se expresa.

**1.- 2003ko MARTXOAREN 11ko**  
**BILKURAREN AKTA ONESTEA**

**1.- APROBACIÓN ACTA DE SESIÓN DE**  
**11 DE MARZO DE 2003**

Zirriborroen kopiak aurretiaz banatuta daudenez, horiek ez dira irakurri eta 2003ko martxoaren 11ko akta aho batez onetsi da, inolako oharrik egon gabe.

Al haberse distribuido con tiempo las copias de los borradores se excusa de su lectura y se procede a la unánime aprobación de la correspondiente al 11 de marzo de 2003 sin observación alguna.

**2.- URDAIBAI BIOSFERA**

**2.- PLAN DIRECTOR ENERGÉTICO-**

**ERRESERBARAKO 2003-2010 PLAN  
GIDARIA (ENERGIA/INGURUMENA),  
EUSKO JAURLARITZAKO INDUSTRIA,  
MERKATARITZA ETA TURISMO ETA  
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA  
INGURUMEN SAILEK SUSTATUA**

Zuzendari-artatzaileak Plan Gidariaren edukia zehatz azaldu eta Patronatuko Osoko Bilkuraren txostena eskatuko duela esan du, eta bilkura hori gaurkoaren biharamunean egingo da.

Kontseiluko kideek baserrietan errota instalatzearen benetako bideragarritasunari buruzko galderak egin dituzte, baita aireko linean lurpera sartu behar izateari buruzkoak ere, eta Arana Eiguren jaunak galdera horiei guztiei erantzuna eman die.

Nolanahi ere, Urdaibaiko industriek (Inama, Wartsila eta Salica) dirudienez bidezko lizentziarik gabe egindako baterako sorkuntzari dagokionez, Kontseilua kezkatu agertu da, eta horri buruzko araudirik ez egotea kritikatu du.

Azken batean, aipaturiko kezka hortxe egon arren (ez baitauka eragin zuzenik Plan Gidarian), proposaturiko Planaren aldeko txostena sustatu da aho batez.

**3.- MURUETAKO UDALAK EGINDAKO  
ESKABIDEA ONARTZEA, LANDA ETA  
MAIOA IRUKARA BASERRIGUNEEN  
ANTOLAMENDUA ERABILI ETA  
KUDEATZEARI BURUZKO EGITAMU  
GIDARIRA EGOKITZEKO**

Berriro ere, Zuzendari-artatzaileak txostenaren eta erabaki-proposamenaren berri zehatza eman du, biharamuneko Osoko Bilkurarako, eta etorle guztiak ados agertu dira azaldutakoarekin.

**4.- SUKARRIETAKO UDALAK  
EGINDAKO ESKABIDEA,  
SUKARRIETAKO PLANGINTZAKO  
ARAU SUBSIDIARIOETAKO LURZORU  
EZURBANIZAGARRIAREN  
ANTOLAMENDUA (2. FASEA) ERABILI  
ETA KUDEATZEARI BURUZKO**

**MEDIOAMBIENTAL PARA LA  
RESERVA DE LA BIOSFERA DE  
URDAIBAI 2003-2010 PROMOVIDO POR  
LOS DEPARTAMENTOS DE  
INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO Y  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y  
MEDIO AMBIENTE DEL GOBIERNO  
VASCO**

El Sr. Director-Conservador da cuenta detallada del contenido del Plan Director que se somete a informe del Pleno del Patronato en su sesión del día siguiente a la presente reunión.

Los miembros del Consejo realizan diversas preguntas sobre la viabilidad real de la instalación de molinos en los caseríos; sobre la necesidad de soterramiento de los tendidos aéreos... que son atendidas por el Sr. Arana Eiguren.

En cualquier caso, respecto de la cogeneración que realizan industrias radicadas en Urdaibai (Inama, Wartsila y Salica) sin las debidas licencias de actividad (según se piensa), el Consejo manifiesta su preocupación criticando la inexistencia de una normativa para ello.

En suma, y aún con la preocupación citada (no directamente incidente en el Plan Director), se apoya por unanimidad el informe favorable al Plan propuesto.

**3.- ADECUACIÓN AL PLAN RECTOR  
DE USO Y GESTIÓN DE LA  
ORDENACIÓN DE LOS NÚCLEOS DE  
POBLACIÓN RURAL DE LANDA Y  
MAIOA IRUKARA PROMOVIDO POR  
EL AYUNTAMIENTO DE MURUETA**

Nuevamente el Sr. Director-Conservador da cuenta detallada del informe y propuesta de acuerdo para el Pleno del día siguiente, mereciendo el asentimiento de todos los asistentes.

**4.- ADECUACIÓN AL PLAN RECTOR  
DE USO Y GESTIÓN DE LA  
ORDENACIÓN DEL SUELO NO  
URBANIZABLE -FASE 2- DE LAS  
NORMAS SUBSIDIARIAS DE  
PLANEAMIENTO DE SUKARRIETA  
PROMOVIDO POR EL**

## **EGITAMU GIDARIRA EGOKITZEKO**

Kontseiluak txosten-proposamenaren aldeko erabakia eman du, eta hori biharamuneko Osoko Bilkuran aurkeztuko da; hala ere, jakin nahi da ea Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Kontseiluak zergatik ez duen kontuan hartzen guneen egoitza-hazkundera, udalerrien egoitza-gorakada kuantifikatzeko muga ezartzeko orduan. Era berean, kezkaturik agertu da eremu horietan Babes Ofizialeko Etxebizitzaren estandarrak eskatzen ez direlako.

### **5.- SALBAMENDU ETA SOROSPENEN BIZKAIKO FEDERAZIOAK EGINDAKO ESKABIDEA, IBARRANGELUKO UDAL MUGARTEKO LAIDA ETA LAGA HONDARTZETAKO SOROSPEN-POSTU MUGIKORRETAKO SANEAMENDUA KANALIZATZEKO PROIEKTURAKO**

Kontseilua ados dago proiektu horren aldeko txostenarekin, txosten horretan azaldutakoaren arabera.

### **6.- EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILAK EGINDAKO ESKABIDEA, FORUKO UDAL MUGARTEKO GAITOKAN INGURUMENA SUSPERTZEKO PROIEKTUA EGITEKO**

Ostera ere, Kontseilua ados dago aldeko txostenarekin, eta hori Patronatuko biharamuneko Osoko Bilkuran proposatuko da.

### **7.- EUSKO JAURLARITZAKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILAK EGINDAKO ESKABIDEA, BUSTURIA ETA SUKARRIETA UDAL MUGARTEETAKO URKITXEPE ZONAKO INGURUMENA SUSPERTZEKO PROIEKTUA EGITEKO**

Kontseilua ados dago aldeko txostenarekin, eta hori Patronatuko biharamuneko Osoko Bilkuran proposatuko da.

## **AYUNTAMIENTO DE SUKARRIETA**

El Consejo muestra su acuerdo favorable a la propuesta de informe que se presentará en el pleno del día siguiente, pero plantea la cuestión de a ver por qué la C.O.T.P.V. no tiene en cuenta el crecimiento residencial de los núcleos a la hora de fijar el límite de cuantificación del incremento residencial de los municipios. Igualmente muestra su preocupación por la omisión de la exigencia de los estándares de V.P.O. en los citados ámbitos.

### **5.- PROYECTO DE CANALIZACIÓN DEL SANEAMIENTO DE LOS PUESTOS MÓVILES DE SOCORRO DE LAS PLAYAS DE LAIDA Y LAGA, EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE IBARRANGELUA, PROMOVIDO POR LA FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE SALVAMENTO Y SOCORRISMO**

El Consejo apoya el informe favorable a este proyecto en los términos propuestos.

### **6.- PROYECTO DE RESTAURACIÓN MEDIOAMBIENTAL EN LA ZONA DE GAITOKA, EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE FORUA, PROMOVIDOS POR EL DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE DEL GOBIERNO VASCO**

Nuevamente el Consejo apoya el informe favorable que se propone al pleno del día siguiente del Patronato.

### **7.- PROYECTO DE RESTAURACIÓN MEDIOAMBIENTAL EN LA ZONA DE URKITXEPE, EN LOS TÉRMINOS MUNICIPALES DE BUSTURIA Y SUKARRIETA, PROMOVIDO POR EL DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE DEL GOBIERNO VASCO**

El Consejo avala el informe favorable que se propone en la sesión plenaria del día siguiente a la presente reunión.

**8.- EUSKOTREN S.A. ENPRESAK EGINDAKO ESKABIDEA, TRENBIDEA KONPONTZEKO MUNDAKAKO UDAL MUGARTEAN (27/381 K.P)**

Kasu honetan ere, Kontseilua ados dago aldeko txostenarekin, eta hori Patronatuko biharamuneko Osoko Bilkuran proposatuko da.

**9.- HIRITARREN PARTAIDETZARAKO GAP-URDAIBAI KANPAINAREN AURKEZPENA**

Zuzendari-artatzaileak kanpainaren edukia eta biharamunerako aurreikusitako aurkezpen publikoa jakinarazi ditu; aurkezpena eguerdian izango da Udetxean.

**10.- PRESIDENTEAREN JAKINARAZPENAK**

Ez dago jakinarazpenik.

**11.- ERREGUAK ETA GALDERAK**

Lehenengo eta behin, zuzendari-artatzaileak jakinarazitakoaren arabera, Bermeoko Udalak aurrerantz jarraitzen du, "konposteko" plantaren proiektuarekin; gainera, planta hori erdigunean kokatu nahi dute eta udal teknikaria den Aurrekoetxea jaunaren presentzia eskatzea bidezkoa dela jo da, horrek informazio zehatza emateko eta, horrela, lankidetzaren eskaintza ahal izateko.

Jarraian, Bermeoko Udalak egindako premiazko obraren lekuan orain ere ura galtzen dela adierazi da; gai hori Patronatuak uztailean egindako bilkuran aztertu zen, Arratzutik iritsitako sareko ur-galtze handia ekiditeko.

Bestalde, zehapen-espedituen egoerari buruz galdetu da (batez ere, Mendataren kasuari buruzkoa); Busturialdeko Ur Partzuergoak lehenengo okupazioko lizentziarik ez duten eraikinetan ere egiten dituzten sarean lotuneak.

Bestalde, INFRISA enpresako pabilioian (Bermeoko Artike auzoa) egiten ari diren obra

**8.- REPARACIÓN DEL VIADUCTO DEL TREN P.K. 27/381 EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE MUNDAKA PROMOVIDO POR EUSKOTREN S.A.**

Igualmente el Consejo apoya el informe favorable que se propone para su consideración en la sesión plenaria del Patronato del día siguiente a la fecha de la presente sesión.

**9.- PRESENTACIÓN DE LA CAMPAÑA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA GAP-URDAIBAI**

El Sr. Director-Conservador informa del contenido de la campaña y de la presentación pública prevista para el día siguiente a esta reunión, al mediodía en Udetxea.

**10.- COMUNICACIONES DEL PRESIDENTE**

No se produce ninguna comunicación.

**11.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

En primer lugar, el Sr. Director-Conservador informa que el Ayuntamiento de Bermeo sigue adelante con su proyecto de planta de "compost" y que está tratando de localizar una ubicación céntrica estimándose oportuno recabar la presencia del técnico municipal Sr. Aurrekoetxea en este Consejo para poder disponer de información detallada y colaborar al respecto.

Seguidamente, se señala que continúa la pérdida de agua en el lugar de las obras urgentes realizadas por el Ayuntamiento de Bermeo y que se trataron en sesión de julio del Patronato, para evitar una importante fuga de agua de la red procedente de Arratzu.

Por otra parte, se pregunta sobre el estado de los diferentes expedientes sancionadores (especialmente el relativo al caso de Mendata), inquiriendo que el Consorcio de Aguas de Busturialdea está realizando los enganches de la red aún en edificaciones que no cuentan con licencia de primera ocupación.

En otro orden de cosas, se pregunta sobre las importantes obras que se están realizando en el

garrantzitsuei buruz galdetu da; dirudienez, obrek udal-lizentzia dute, nahiz eta jabari publiko hidraulikoan eta Urdaibaiko babes-zonan eragina izan.

Era berean, Kortezubiko zonan oraintsu hasitako eraikuntzari buruz galdetu da (hasierako egituran).

Halaber, joan den igandeko txirrindularitza-ibilbideari buruz galdetu da (autorik gabeko eguna); zuzendari-artatzaileak jakitera emandakoaren arabera, ekimen gutxi egon zen, deituriko laguntzen programarako, eta beraz, Patronatuak ikuskizun hori denbora laburrean antolatzeko erabakia hartu zuen. Kontseiluak iradokitakoaren arabera, hurrengo edizioetan ikastetxeen bidez edo horien partaidetzarekin antolatu beharko litzateke.

Azkenik, Madariaga Dorrea Interpretazio Zentrotzat birgaitzeko ekimenaren egoerari eta lan teknikoak Aurrekoetxea Aurre arkitekto jaunari adjudikatzeari buruz galdetu da; zuzendari-artatzaileak bidezko erantzuna eman dio galdera horri.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat jo da 20:55ean; gero, akta hau egin eta behean sinatu duen idazkariak horren fede eman du.

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 indarreko legearen 27.5 artikulua ezartzen duenez (BAO 285 zenbk.), aditzera ematen da akta hau oraindik onetsi gabe dagoela.

pabellón de INFRISA (barrio de Artike de Bermeo) que, al parecer, se ejecutan con licencia municipal aun cuando afectan al dominio público hidráulico y a zona de protección de Urdaibai.

Igualmente se pregunta sobre una edificación recientemente iniciada (en estructura inicial) en la zona de Kortezubi.

Asimismo, se pregunta sobre al recorrido ciclista del pasado domingo (día sin coche) informando el Sr. Director-Conservador que hubo pocas iniciativas al programa de ayudas convocado por lo que el Patronato optó por organizar, en poco tiempo, el evento citado. Desde el Consejo se sugiere que en próximas ediciones se organice a través o con el concurso de los centros escolares.

Por último se pregunta sobre la situación de la iniciativa de rehabilitación de Torre Madariaga (futuro Centro de Interpretación) y la adjudicación de los trabajos técnicos al arquitecto Sr. Aurrekoetxea Aurre, lo que recibe cumplida respuesta por parte del Sr. Director-Conservador.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se dio por concluida la reunión a las 20 horas y 55 minutos, levantándose la presente acta bajo la fe del suscrito secretario.

De conformidad con lo prevenido en el art. 27.5 de la vigente Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (B.O.E. nº 285), se señala que la presente acta se halla aún pendiente de aprobación.

**Fdo.: Juan LANDA MENDIBE .: Izta  
SECRETARIO / IDAZKARIA**

**OI.Iñaki URIBARRENA IBARGUENGOITIA.VB  
LANKIDETZA KONTSEILUKO LEHENDAKARIA  
PRESIDENTE DEL CONSEJO DE COOPERACION**